



HEZKUNTZA SAILA  
Lanbide Heziketako Sailburuordetza  
Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza  
Aurreratuen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Formación Profesional  
Dirección de Transformación Digital y  
Aprendizajes Avanzados

EBAZPENA, 2025eko urtarrilaren 28koa, Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendariarena, ERASMUS+ programako Lanbide Heziketaren eremuko jardueretan parte hartzen duten irakasleei egiaztatuko zaien ordu-kopurua zehazten duena.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko maiatzaren 20ko 2021/817 (EB) Erregelamenduak Erasmus+, hezkuntzarako eta prestakuntza, gazteria eta kirolerako Batasunaren programa ezartzen du. Honek askotariko hezkuntza-proiektuetan irakasleen parte hartzea bultzatzeko hainbat ekintza eta ekimen gauzatzen du.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuak 20. artikuluan dio Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari dagokiola, besteak beste, hezkuntza-sistemako lanbide heziketari dagokionez, programa europarretan eta batasuneko ekintzetan parte hartzeko beharrezko ekintzak sustatu eta bultzatzea, bai eta lanbide heziketako irakasleentzako etengabeko prestakuntza-planak diseinatu eta aplikatzea; eta kontuan hartuko direla eguneratzea eta espezializatzea ere.

Beraz, eginkizun horiek betetz, Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza da organo eskuduna Erasmus+ programako lanbide heziketaren eremuko proiektuetan parte hartzen duten irakasleei egiaztatuko zaizkien prestakuntzako eta berrikuntzako orduak aitortzeko ziurtagiriak emateko.

Horrenbestez, hau

#### EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- Xedea

Ebazpen honen xedea da Erasmus+ programako lanbide heziketaren eremuko jardueretan parte hartzen duten irakasleei egiaztatuko zaien ordu-kopurua zehaztea.

BIGARRENA.- Aplikazio eremua.

Ebazpena nori aplikatuko zaion:

1. Ebazpen hau **2023-2024 ikasturtean** Erasmus+ programako jardueretan parte hartu duten Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren kudeaketa-eremuko ikastetxeetako lanbide heziketako irakasleei aplikatuko zaie. Programa horren onuraduna eskabidea aurkeztu duen araubide juridiko pribatuko erakundea izan beharko da.
2. Erasmus+ proiektuetan parte hartzen duten irakasleen parte-hartzea ziurtatuko da, horien onuraduna honako hau izanik:
  - a. proiektuaren onuraduna lan egiten duten ikastetxea bada.
  - b. hezkuntza-agintaritza bat bada.
  - c. beste hezkuntza-erakunde mota bat bada.



HIRUGARRENA.- Egiaztatze-irizpide espezifikoak. Aurreko atalean adierazitako eskakizunak betetzen dituzten irakasleek eskatu beharko dute orduak egiaztatzeko, eta honela egingo da:

a. Erasmus+ - 1. Ekintza gakoa (KA1) - Pertsonen mugikortasuna, ikaskuntza dela-eta» proiektuetan parte hartzen dutenak. Hezkuntzaren, prestakuntzaren eta gazteriaren arloko mugikortasun-proiektuak KA1.		
Kontzeptua	Egiaztatzen dena	Parte-hartzea egiaztatzeko modu posibleak
a.1. Partzuergo baten koordinatzailea.	50 ordu ikasturteko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kofinantzaketa-eskaeran arduradun moduan agertzen da</li> <li>- Beneficiary Module kudeaketa-programari buruzko informazioa</li> <li>- Contact person in application form</li> </ul>
a.2. Erakunde bateko mugikortasun-proiektuaren koordinatzailea.	35 ordu ikasturteko.	
a.3. Praktika onak behatzeko jarduera bateko partaidea.	5 ordu eskola-eguneko. Bidaia-egunak eta asteburuak ez dira kontuan hartuko, salbu eta egun horietan praktika onak behatzeko jarduerak egin direla justifikatzen bada.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertaratze-ziurtagiria; mobility certificate, proof of attendance</li> <li>- Time-sheet</li> <li>- Jardueraren programa</li> <li>- Erasmus+ work programme for VET staff mobility</li> </ul>
a.4. Prestakuntza-ikastaro egituratu bateko partaidea.	Ikastaroko asistentzia-ziurtagirian agertzen den ordu-kopuruaren arabera.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastaroan parte hartu izanaren egiaztagiria</li> </ul>
a.5. Atzerriko erakunde bateko irakaskuntza-jarduera bat garatzeko mugikortasun-jarduera bateko partaidea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 8 ordu eta 12 ordu arteko irakaskuntza, 20 ordu asteko.</li> <li>- 13 ordu eta 25 ordu arteko irakaskuntza, 25 ordu asteko.</li> </ul> (Kontuan hartuta asteko gutxienez 8 eskola-ordu dela, eta prestakuntzarako denbora hartu beharko dutela, beste hizkuntza batean seguru asko.)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Atzerriko erakundearen ziurtagiria</li> </ul>



b. Erasmus+ - 2. Ekintza gakoa (KA2) - Praktika onak berritzeko eta trukatzeko kooperazioa» proiektuetan parte hartzen dutenak. Hezkuntzaren, prestakuntzaren eta gazteriaren arloko elkarte estrategikoak KA2.		
Kontzeptua	Egiatzen dena	Parte-hartzea egiaztatzeko modu posibleak
b.1. Elkartearen koordinatzaile orokorra.	60 ordu ikasturteko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Beneficiary Module kudeaketa-programari buruzko informazioa</li> <li>- Contact person in application form</li> </ul>
b.2. Elkartearen koordinatzailea Espainiako erakundeetan.	45 ordu ikasturteko.	
b.3. Elkarteko partaidea/kolaboratzailea Espainiako erakundeetan.	35 ordu ikasturteko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- List of persons with a formal link to the organisation</li> <li>- Partner organisation</li> <li>- Bileretan parte hartu izanaren egiaztagiria. Bileren akta.</li> </ul>

LAUGARRENA.- Eskabidea egiteko prozedura.

Txosten bat (I. eranskina edo II. eranskina) aurkeztu beharko da hurrengo informazioarekin:

- Proiektuaren deskribapen labur bat (proiektuaren zk., zer ekintza gako den –KA1 edo KA2–, izenburua, iraupena...).
- parte hartzen duten irakasleen oinarrizko datuak (izen-abizenak, NANA), irakasle bakoitzak proiektuan zer profil duen zehaztuz (koordinatzaile edo partaide/kolaboratzaile), eta hala badagokio, mugikortasunaren iraupena, destinoko herrialdea eta zer mugikortasun motatan parte hartu duen (ikastaro egituratua, praktika onen behaketa, irakaskuntza-egonaldia),
- parte-hartze horri buruzko egiaztagiria erantsita eta, irakaskuntza-egonaldiaren kasuan, jarduerak zenbat ordu irauten duen adierazi beharko da.

Egiaztagirietan, gutxienez, dagokion proiektuaren kodea, dagokion ikasturtea eta parte-hartzailearen edo koordinatzailearen izen-abizenak agertu beharko dira.

Egiaztapena edozein frogabide baliagarriren bidez egin ahal izango da. Nolanahi ere, hirugarren puntuko hirugarren zutabean, justifikatzeko modu posible batzuk zehazten dira.

Txosten hau Erasmus+ proiektuaren koordinatzailearen jarraibideei men eginez egingo da eta eskaera elektronikorekin batera bidali beharko da honako helbide hau erabiliz:

<https://www.euskadi.eus/web01-sedeform/eu/x43kToolkitWar/form/fdp?procedureId=0097418&tipoPresentacion=1&language=eu>

Hau egiteko Identifikazio elektronikorako onartutako bitarteko bat erabili beharko da:

<https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>.

BOSGARRENA.- Egiaztatze-irizpide orokorrak.

- a. Ekintza gakoan (KA1) proiektu batean parte hartzeagatik kredituak eskuratzeak ez du eragozten programa bereko 2. ekintza gakoan (KA2) proiektu batean parte hartzeagatik kredituak eskuratzea.
- b. Erasmus+ proiektuak - KA1  
Hirugarren atalean (a.1. eta a.2.) kredituak eskuratzeak ez du eragozten atal bereko beste puntu batzuetan ere kredituak lortzea, baldin eta parte hartzaileak atal bereko a.3, a.4 eta a.5 puntuetako mugikortasuna egiteagatiko eskakizunak betetzen baditu.
- c. Erasmus+ proiektuak – KA2  
Adierazitako hiru puntuetako batean (b.1, b.2 edo b.3) kredituak lortzeak gainerako bi puntuetan kredituak lortzea baztertzen du. Hau da, kredituak puntu horietako batean bakarrik lortu ahal izango dira.
- d. Proiektu baten koordinazioa persona batek baino gehiagok kudeatzen badu, lan hori ziurtatuko da pertsona bakoitzak koordinazio horretan emandako denboraren arabera, lan egindako ordu guztien gainean. Hezkuntza-erakundeko zuzendaritzak egiaztatu beharko du.
- e. Edonola ere, gehienezko 90 orduko muga ezartzen da irakasleko eta ikasturte bakoitzeko.



SEIGARRENA.- Aurkezteko eta zuzentzeko epea.

- a. Eskabideak aurkezteko epea 2025eko martxoaren 1ean bukatuko da.
- b. Eskabideak ez baditu betetzen eskatutako betekizunak, hamar eguneko epea emango zaio erakunde interesdunari akatsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak aurkezteko. Horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, ebazpena eman ondoren. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

Inge Gorostiaga Luzarraga  
Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria